



Aurrekontu proposamena aurkeztu du Gobernu taldeak

Iazkoaren ildotik doazen arren, Gizarte Zerbitzuetan edota enpleguan sakondu nahi dute.

Hedabideen aurrean agertu ziren asteazken eguerdian Andoaingo gobernu taldeko kide diren **Ana Carrere** alkatea, **Agustín Alberro** ogasun zinegotzia eta **Jon Zulueta** enplegu eta gazteria teknikaria. Oposizioko alderdien esku utzitako dokumentazioaren aurkezpena egin zuten, zeinean indar berezia egin nahi duten gizarte zerbitzuetan, enpleguan, zerbitzuetan eta inbertsioetan. Ana Carrerek zehaztasun batzuk eskaini zituen. Gi-



Jon Zulueta, Ana Carrere eta Agustín Alberro Udal gobernu taldeko kideak.

zarte zerbitzuen alorrean, esaterako: “Pobrezia energetikoari aurre egiteko urrats berriak planteatzen ditugu. Argindarra-

ri bideratutako dirulaguntzez gain, gasa ordaintzeko dirulaguntzak eskainiko ditugu. Zailtasun ekonomikoak dituzten

adin txikiko haurren familientzat, bestalde, eskolaz kanpoko ekimenetan parte hartzeko beka sistema berria ere txertatu nahiko genuke”.

Jon Zulueta EH Bilduko bozeramaileak iaz lortutako adostasun politikoari eusteko borondatea agertu zuen: “Lan metodologian iazkoaren bidetik jarraitzea proposatu dugu. Iazkoa oso garrantzitsua izan zen lau urteko blokeoari amaiera eman zitzaiolako. 2016an lau aderdien arteko akordioa lortu zen, 12 zinegotziren babesarekin. Aurten guretzat hori abiapuntua da. Adostasun horretatik abiatuta hasi gara lanean, eta babes handiagoa lortzea espero dugu”.

Rodriguez eta Iturralde bikain maratoian

Andoaindarrak lehen postuetan helmugaratu ziren, 11. eta 16. hurrenez hurren. Donostiako Maratoian andoaindar eta urnietar ugarik hartu zuen parte, ibilbide ezberdinetan.

[KIROLA, 11. ORRIALDEA]

Punttuka bertso eskola

Taldea osatu da Andoainen, bertso gintzan aritu eta gozatzeko. Kide berrientzat atea zabalik dago.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Euskararen Eguna Andoainen

Herri eragile ezberdinek jarduera ugari antolatu dute, ostegunean hasi eta larunbata bitarte.

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]

Klubaren kopan bigarren

Buruntzaldea IKT igerilari taldearen emaitza bikaina.

[KIROLA, 11. ORRIALDEA]

“Gabon Txirrita” ikuskizunaren azken emanaldia Basteron

Laugarren eta azken emanaldia eskainiko dute Basteron, ostiral honetan. Urnietako antzezlanak ikusteko azken aukera izango da.

Xabier Letek 80ko hamarkadan idatzi eta zuzendu zuen antzezlan Urnietan biziberritu dute, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren egitarauaren bai-

tan. Txirrita hil zela 80 urte bete direnean, haren bertsoak ondo gogoan geratu dira euskaldun askoren oroimenean. Urnietako taldearen lan handiari esker antzezlanak berriro martxan jarri dute, arrakasta handiarekin gainera. Urnietako, Donostiako eta Ereñotzuko emanaldietara ehunka ikusle bertaratu dira eta ezustekorik ez badago, Basterokoa “Gabon Txirrita”z gozatzeko azken aukera izango da.

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]





OSTIRAL HONETAN ANDOAINGO BASTERON!

Gabon, Txirrita

Noiz: Abenduaren 2an, ostiralarekin.

Non: Andoaingo BASTERO Kulturgunean.

Ordua: 21:30

Sarrera: 12€

Sarrerak salgai. Andoain: Ernaitza, Delgado eta Stop. Urnietak: Bikain (plaza).

111AKADEMIA:

Lapurrekin:

Babesle:

kutxa

ABENDUAREN 2TIK 6RA

Durango euskararen eta kulturaren hiriburua

Goiztiar dabil aurten Durangoko Azoka, asteburu honetan ospatuko baita 51. edizioa. Azken urteetan liburu eta diskoen azoka izate-tik, jarduera anitzen erakustoki bilakatu da.

Bost egunez ehunka disko eta liburu erosteko aukera izateaz gain, kultur jarduera ugari burutuko da abenduaren 2tik 6ra Landako gunean eta inguruko areto ezberdinetan.

Durangora gerturatzen diren bisitariek, diskoak eta liburuak eskuratzeko gain, berrehun ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute: kontzertuak, solasaldiak, proiektzioak, umeentzako jarduerak, tailerrak, ikuskizunak eta abar. Aurtengo edizioaren aurkezpenean Gerediaga elkar-teko lehendakari **Nerea Mujikak** euskaltzale guztiei gonbite zu-zena egin zien: "Zuek etorri, guk prest izango dugu dena. Erakustokiak kultur produktuz gainezka izango ditugu, doze-naka talde arituko dira taula gainean, hamarnaka proiektu digital, ikus-entzunezko pieza eta antzezlan ezagutzeko auke-ra izango dugu".

Ikusi, ezagutu eta ikasteko asko dago Durangoko azokako guneezberdinetan. Den-dena metro gutxi-tartean.

ARETO NAGUSIA

Azokako partaideen zabalkun-de lanen aurkezpenek eta *Gogoetaren Plazak* solasaldi eta mahai-inguruek osatzen dute Areto Nagusiaren programazioa. Zabalkunde lanei dago-kienez 45 aurkezpen izango dira: Lehenengo Mundu Gerra buruzkoak, hizkuntzaren ingurukoak, futbolaren gainekoak eta abar.

Gogoetaren Plazak berriz, hirugarren urtez, kulturgintzaren hausnarketak eta eztabaidak Azokaren bihotzera eramango ditu. Aurten lau izango dira Gogoetaren Plazan arratsalde-landuko diren gaiak: abenduaren 3an "Andrazkoek plazan" duten ikusgarritasunaren inguruan jardungo dira, abenduaren 4an ondareaz, abenduaren 5ean kultur edukiontzia kudeatzeko moduez eta abenduaren 6an telebista ereduez.

AHOTSENEAK

Urtero bezala Ahotseneak 2016ko diskoen eta liburu-aurkezpenak hartuko ditu. Zuzenekoan karpan 70 musikarik eta musika-taldek aurkeztuko



Durangoko Azokako eragile ezberdinak, aurkezpen ekitaldian. Tartean da Gorka Julio andoaindarrak, Kabi@ guneko kideetakoak.

dute beren lana kontzertu formatuan. Solasaldien gunean, aldiz, hainbat formatutan: solasaldia, mahai-ingurua, errezi-taldia, ikuskizuna, emanaldi akustikoa...

Bide luzeko sortzaileek sortzaile hasiberriekin elkarbanatuko dute eszenatokia. Gatibu, Kokein, edo Etxerekin batera, Kohatu, Zazkel, Rukula, Magnetico Grupo Robot edo Erri-me jardungo dira. Eta berdin idazleak. Ahotseneatik pasako dira aurten hamaika idazle: Arantxa Urretabizkaia, Asier Serrano, Aitziber Etxe-berria, Kirmen Uribe, Miren Gorrotxategi, Patxi Larrion, Mariasun Landa...

Iparraldetik hainbat egile hurbilduko dira. Zuzenekoetan: Tristtan Mourguy, Xabaltx, Otxalde, Arramazka, Bidaia, Begiz-Begi, Pier Paul Berezaitz... Eta idazleak: Erich Ditcharry, Amaia Blasco...

SAGUGANBARA

Euskal kulturaren transmisio-rako gunea da, hizkuntzarekin jolas egiteko. Ideia horren bueltan, egitarau anitza eta oparoa prestatu dute: ikasleen

tzako tailerrak, ikuskizunak, ipuin kontaketa, aurkezpenak, ikusgarri musikalak, sormen tailerrak. Aurtengo berri-kuntza Talentue plazara! egitasmoa izango da, jarduera artistiko ezberdinetan aritzen diren ume eta gaztetxoek lekua eginez.

PLATERUENA

Kontzertu handienak Platerue-nan izaten dira, Landako gunea itxi eta gero. Abenduaren 2an Willis Drummondekina hasiko da aurtengo programazioa, eta hurrenez hurren, abenduaren 3an Zea Mays, 4an Hesian, 5ean Skakeitan eta, Bide Ertzean abenduaren 6an.

IRUDIENEA

Euskal ikus-entzunezkoen aretoa da Irudienea, baina ez da areto soil bat, elkargune bat da: jakintza kolektiboa partekatzeko, eta batez ere, euskal sortzaileek beraien lanak proiektatzeko gunea: Film luze eta laburrak, fikzio-esperimentalak, dokumentalak, haurrentzako zinema, mahai-inguruak, solasaldiak eta tailerrak.

SZENATOKIA

Arte eszenikoen gunea da, eta beraz, antzerkigile, antzezle eta antzerkizaleen topalekua. Szenatokia hiru plater nagusi izango dira aurtengo programazioan. Batetik, Xake produkzioen Mami Lebrun antzezlan eskainiko da abenduaren 4an. Hurrengo egunean, antzerki maratona. Eta abenduaren 6an "Francoren bilobari gutuna" antzezlanarekin gozatzeko aukera izango da. Bi emanaldi izango dira gainera; goizez eta arratsalde. Beste urte betez San Agustín aretoa bihurtuko da arte eszenikoen plaza.

KABI@

Kabi@ kultura eta eduki libre-aren gunea da, kultura digitalaren eremuko sortzaile, enpresa, web garatzaile eta ekintzaileen topaleku. Iazko moduan, Areto Nagusiaren ondoan egongo dira kabi itxurako domo geodesiko batean. Egutero goiburua ezberdin baten bueltan egituratu dituzte aurkezpen, solasaldi eta mahai-inguruak.

Abenduaren 2an, esaterako, gazteekin robotikaren

Ikusi, ezagutu eta ikasteko asko dago Durangoko azokako guneezberdinetan. Den-dena metro gutxi-tartean

mundua landuko dute, eta hel- duekin, Wikipedian editatzeko jarraibideak emango dituzte.

Abenduaren 3an, bideo-jokoak izango dira eguneko protagonistak. Gamerauntsia komunitatearen eskutik, euskarazko bideojokoen eskaintza- ren zati bat ikusi eta hauetaz gozatzeko aukera edukiko da.

Hurrengo egunean, berriz, "Sortzaileak eta komuni- kazioa" izango ditugu ardatz. Besteak beste, dokumentazio atarien edota Euskal Herrian egindako webdoc-en esperien- tzia ezagutuko da. Eguna amaitzeko euskal marrazkila- rien topagune bihurtuko da Kabi@, Marrazkeraz ekimenari esker.

Abenduaren 5ean, garapena eta euskara izango dira enbo- rrezko gaiak. Hizkuntz eskubi- deen inguruko plataforma eta Ondarroako herri hizkeraren gaineko aplikazioa izango dira Kabi@n aurkeztuko diren batzuk.

Amaitzeko, azken eguna komunitatearen eguna izango da. Librezaile talde irekiak mara- toia egingo du, Libreoffice ofi- matika paketearen laguntza webgunea euskaratzeko. Eta aurtengo Kabi@ren programazioa amaitzeko, sare sozialen inguruan hitz egingo dute, zu- zenbidearen ikuspuntutik: Zeintzuk dira betebeharrak? Eta zeintzuk, arau hauste na- gusiak?

AZOKA TB

Azokak irauteen duen egunetan eta ordutegian emisio jarraitua eskainiko du euskarazko tokiko telebistetan, eta streaming bidez www.durangokoazoka.eus webgunetik.

Lursailak herritarren esku daude, eurek landu eta zaintzeko

Baratze parkearen irekiera ekitaldia



Urnietan Baratze parkea uda aurretik martxan jarri zuten arren, pasa den larunbatean egin zuten inaugurazio ofiziala. Bertan, 49 partzelentzako tokia eta erremintentzako biltegi edo aldagela gisa erabil daitekeen etxola dago.

Kutxa Ekogunearen laguntzarekin, Urnietako Udalak egitasmo honekin elikadura eta ohitura osasuntsuak sustatzearen aldeko apustua egin du. Izan ere, Baratze parkeak urnietarrei norberaren barazkiak era ekologikoan landatzeko aukera eskaintzen die. “Aisialdi aktiborako topagune izango da, belau-naldi ezberdineko giza talde ezberdinen arteko elkarbizitza eta harremana bultzatuko duen gune berdea”, adierazi zuen **Mikel Pagola** alkateak. Berarekin batera izan ziren udaletzeko ordezkariak eta **Mikel Insausti** Ekoguneako zuzendaria.

Insaustiren hitzetan, Baratze parkeen helburua lursailak auto-hornikuntzarako erabiltzea dira; norberaren kontsumorako eta etekin ekonomikorik jasotzeko aukerarik gabe. Proiektua



Aurreko larunbatean egin zuten irekiera ekitaldia.

hasi zenetik, 13 Baratze parke sortu ditu Ekoguneak; orotara, 917 lursail eta 43.200 metro karratu inguru.

Urnietan, erabiltzaileak ekainean hasi ziren baratzetan lanean. Bertan, 49 partzelentzako tokia dago, horietako 48 lursail 40 metro karratukoak dira eta, bestea, behar bereziak dituzten pertsonentzako egokitua. Erremintentzako biltegi edo aldagela bezala erabili dezaketen etxolaz gain, uraskak eta auzokonposta egiteko gunea ere badute. Lur-

sailak urtebeterako eman zituzten, baina epea lau urtera arte luzatu daitekeela azaldu dute.

FURGOBARATZA

Baratze Parke guztiek, gainera, *furgobaratza* izeneko zerbitzua jasotzen dute erabiltzaileei laguntza emateko helburuarekin. Honela, Baratze parke sareko teknikari bat beraiengana hurbiltzen da hilero baratzean sortzen zaizkien zalantzak argitze-ko, eta konponbideak eta gomendio praktikoak eskaintzeko.

Zanpatuz elkartearen urteko batzarra abenduaren 16an

Zanpatuz mendi elkarteak urteroko batzarra deitu du datorren abenduaren 16ra-ko, ostirala. Gonbitea herritar guztiei helarazten zaie, Sarobera gertura daitezten. 19:00etatik aurrera kudeaketa taldeko kideek urteko balantzea egingo dute, antolatutako irteerekin halako argazki diaporama bat erakustearrekin batera. Batzarrera agertzen direnen zalantzak argitzeko une aproposa izango da, eta horiek argitu ostean, 2017 urteko irteeren aurreikuspena jakinaraziko da. Ohi bezala, hilabetero jarduera bat antolatzen ahaleginduko da mendi elkarte.

BATZARRA

ETA IKUS-ENTZUNEZKOA

Egutegia jakinarazi ondoren, bi urnietarrek Nepalen egin-dako bidaiaren emanaldia ikusi ahal izango da, 20:00ak aldera. **Joseba Oiarzabal** eta

Andoni Urbistondok Annapurnako trekking-a osatu zuten iraila eta urrian, hiru asteko bidaian, eta han ikusi eta ezagututakoaren bildumarekin berrogei bat minutuko pelikula osatu dute, '*Bistare-Bistare*' izenekoak. Bi egileak Saroben izango dira, emanaldia bukatuta jendeak nahi beste galdera egin, eta nepal-darren egunerokoaz informazio gehiago jaso dezaten.

Batzarraren ondoren afaria egingo dute Elutxeta sagardotegian. Afaria gaueko 21:30ak aldera hastea espero da. 20 eurokoa izango da afariaren ordaina, eta menua, honakoa: entsalada, tortilla eta kostilla. Edaria, kafea eta postrea. Izena emateko zerrendak Xauxar, Kantoï eta Ikasmin akademian egongo dira abenduaren 13ra bitarte. 20 euroak izena emateko orduan ordaindu beharko dira.

Mendi bizikleta irteera Leitzarano haranean barrena




Zanpatuz elkarteak antolatuta, mendi bizikleta irteera burutu zuten joan zen igandean. Arrakastatsua, erabat, 25 lagunetik gora abiatu baitzen herriko plazatik goizeko 09.30ak jota. Leitzarango kanaletara egin zen irteera, 40 kilometro inguru eta 3 orduko irteera denera, eguraldi lehorrekin. Irteera giro onean egin zen, eta matxura mekaniko larririk gabe.

BTT irteera izan da urteko azken aurrekoa. Azkena

Adarramendiko gaueko igotza izango da. Abenduaren 23rako iragarri dute, ostiralez, Gabon Gau bezperan. Ez da inon izenik eman behar, iluntzeko 18:30ak aldera Besabira azaldu baizik. Handik gailurrera igo eta buelta. Norberak bere argia eraman beharko du, eta kontuz igo. Antolatzaileek autoetan-eta igotzeko koordinatzeko eskaera egin dute, Besabin auto pilaketarik ez gertatzeko.

TRATU TXARREN AURKAKO EGUNA




Bilkura jendetsua izan zen azaroaren 25ekoa. Argazkian agertzen ez diren herritar gehiago zegoen arkupeetan.

Presentacion de Maria Euskararen Egunarekin bat

Euskararen Nazioarteko Eguren harira, ostiral arratsaldean ikasleek ekitaldia egingo dute San Juan plazan. Eta Euskararen Egunean

bertan, abenduaren 3an, Zubitzoko plazan tailer desberdinak eta txokolatada antolatu dituzte goizeko 11:30etik aurrera.

Osasunaren eta adostasunaren alde



Ehunka pertsona bildu zen Donostian.

Erraustegiaren auziari eta hondakinen kudeaketari alternatibak lantzeko lanean dabilen GuraSOS erakundeak manifestazioa deitu zuen aurreko larunbatean, Gipuzkoa osoko ehunka pertsona batu zituelarik.

Joxe Mari Izetak eta Esti-txu Fernandezek elkartearen izenean adierazpena egin zuten manifestazioaren amaiera aldera: “Gaur Gipuzkoak adostasunaren eta osasunaren bidea aukeratu du. Gaur

Gipuzkoak liskarrari ezetz esaten dio, zatiketari ezetz esaten dio, eta ezetz esaten dio inposaketari. Gaurtik aurrera, guztiok batera Gipuzkoa osasuntsuago baten alde egingo dugu”.

Auzia argia izatea aldarrikatzen dute, eta eztabada irekia izatea: “Zer jaten, zer edaten eta zer arnasten ari garen jakin nahi dugu. Gehiago jakin nahi dugu, informazio eta eztabaida gehiago nahi ditugu.

Ordezkarri jaun andreak, herritarrei entzutea eskatzen dizuegu. Eta gaur hau esaten dugu: osasuna da garrantzitsuena! Botu paper bat baino zerbait gehiago gara. Parte-hartu nahi dugu guri dagokigun gauzetan, eta parte-hartuko dugu. Hondakinen kudeaketaren gaian irtenbide gehiago eta hobeak nahi ditugu. Segurtasun gehiago eta babesa nahi ditugu”.

Ekitaldian bertan, GuraSOS taldeak mahai gainean jarritako proposamena azaldu zuten.

GuraSOSen proposamena

GURASOSek hondakinen kudeaketaren gaian irtenbide bat lortzeko bide orria aurkeztu zuen:

1. Berehalako erabakia hondakinen kudeaketarako azpiegituren lizitazio eta kontratazio prozesuetan atzera egiteko edo haiek GELDIA-RAZTEKO. Epe laburrera zerbitzua emateko beharrezko diren bitartekoak kontratatzea.
2. LEGEZTATZEA. Paraleloki premiaz ekitea Gipuzkoako Hiri-Hondakinen Kudeaketako Plan Integrala berrikusteko izapideei.
3. GIZARTERATZEA: Foru Aldundiaren baitan mahai soziala sortzea hondakinen kudeaketarekin lotutako herritar elkarte eta mugimendu presentzia eta partaidetza bermatzeko.
4. INFORMAZIOA ETA GARDENTASUNA. Mahai tekniko bat sortzea Foru Aldundiaren baitan osasun publikoaren gaian eta hondakin kudeaketan aditu eta teknikari direnen presentziarekin, Foru Gobernuaren proposamenez, foru parlamentuko talde politikoaren proposamenez eta halaber elkarrekin proposamenez izendatuak.
5. PARTAIDETZABIDEZKO HAUSNARTZE PROZESUA: 3. eta 4. puntuan aurreikusitako mahaiak Hondakinen Foru Planaren berrikuspenaren tramitazio prozedurara bilduko dira, indarreko legediak aurreikusi bezala (hondakin eta lurzoruko kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011

- Legearen 10. artikulua; ingurumen gaitan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegi-tzara joateko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 16. artikulua (2003/4/EE eta 2003/35/EE artz-tarauak txertatzen ditu) eta herri-tarren partaidetzari buruzko uztai-laren 8ko 1/2010 Foru Araua.
6. OSASUNAREN BABESA ETA GIZARTE KOHESIOA.- Prozesuan parte hartzen dutenek jarraibide komun partekatutako batetik abiatzen dira: osasun publikoari eta ingurumena-ri berme gehien eskaintzen dizkion irtenbidearen bila aritu eta era berean gizarte kohesioaren aldetik maila gorenak lor ditzakeena.
 7. HOBETO EGOKITZEA GAIARI BURUZ EUROPAK DATOZEN POLITIKEL.- Irtenbideak izan behar du baliabi-deen erabilera eraginkorrari buruz 2015eko uztailaren 9an Europar Parlamentuak emandako Ebazpe-nari hobekien egokitzen zaiona.
 8. AKORDIO ETA IRTENBIDE PARTE-KATUA.- Ordezkarri politikoek lor-tuko dute aurre egin beharreko bi arazoei irtenbidea ematen dien AKORDIO politikoa: hondakinen kudeaketari eta gizarte kohesioa-ren gabeziari, txanpon beraren aur-kia eta ifrentzua balira bezala. Akor-dio horren zimenduak izango dira partaidetzazko hausnartze proze-suaren fruitu izango diren adosta-sun tekniko eta sozialak.

Elkarteko haurrei terapiak eskaintzeko zerbitzua martxan dago

Pausokaren egoitza berria



Pausokaren egoitza berriaren irekiera ekitaldia egin zuten larunbat goizean.

Hedabideen aurrean egitasmoa aurkeztu ondoren, gune berriaren irekiera ofiziala larunbat eguerdian egin zuten.

INKESTA

1. Zein lotura duzu Pausokarekin?
2. Zer iruditzen zaizu elkarteak egiten duen lana?
3. Gustatu al zaizu egoitza berria?

Luismi Gómez:

1. Olatz 14 urteko hauraren aita naiz. Gure haurrarentzat tratamendu falta sumatu genuen eta Hernanin hasi ginen fisioterapeutekin lanean. Pixkanaka, haur gehiago zeudela ikusita, haur guztien beharrak erantzuteko lokal handiago bat eman ziguten. Horrela iritsi gara honaino.
2. Guraso ikuspegitik, zoragarria iruditzen zait Pausokaren lana. Ezinbestekoa da, gurasoen laguntzaz gain, atzetik dagoen jende guztia-ren laguntza jasotzea.
3. Oso polita. Udalari eta posible egin duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet, Urnietan egoteko aukera emateagatik.



Izaskun Alcalá, Paki Navas eta Luismi Gomez egoitza berriaren irekiera ekitaldian.

Paki Navas

1. Besteei laguntzea gustatzen zaidanez, bolondres bezala hasi nintzen. Nire enpresan, proiektu solidarioak aurkeztu nuen eta irabazi egin zuten. Horrela sartu nintzen ni egitasmo honen barruan.
2. Beharrezkoa. Maria nire laguna denez, pixkanaka laguntzen hasi nintzen, gaur arte. Gaur egun, aktiboki laguntzen dut.
3. Oso polita. Bertan parte hartu dut garbiketa eta margo-keta lanetan laguntzen. Gaztelua eta zalduna nik margotu ditut.

Izaskun Alcalá

1. Pausoka egunean hasi nintzen bolondres modura laguntza behar zutelako, eta hortik aurrera nire laguntza eskaini nien. Merchandising arduratuko naiz.
2. Gertutik ezagutzeko aukera izan dut eta, egia esan, egiten duten lana izugarria da.
3. Oso polita geratu da. Jende askok lagundu du eta hori oso ederra izan da.

Pausokaren egoitza berria Idiazabal kalearen 13. zenbakian dago. Abenduaren 1az gozotik martxan dago.

HAUR ETA GURASOEN IRTEERA AZKORTE ALDERA



Mendi irteera abentura bilakatu zuten azaroaren 20an, Azkorte aldera antolatutako ibilaldian. Dozenaka lagunek parte hartu zuten Egape ikastola, Presentacion de María ikastetxea eta Lasarte-Oriako Sasoeta ikastolatik.

Hainbat gazteren lana, kale hezitzaileekin batera

Ibaietara botatako zaborra plazan ikusgai ipini zuten

Auto gurpilen kubiartak, llanak, sukaldeko tresneria, burdin puskak... Denetik topatu eta bildu dute Leitzaran ibaia- ren bazterretan egunotan. Lau gaztek Hezi Zerb elkarteko kale hezitzaile batekin jardun dute lanean, eta bildutakoaren lagin bat jarri zuten ikuskai Goikoplazan aurreko astean.

“Hainbat egunez goizez egin dugu lan. Leitzaran ibaia- ren bazterrak garbitzeari ekin diogu. Gure harridurarako, esan behar dugu ez genuela espero hainbeste zakar biltzea”. Hala- xe mintzatu zen Andoni Otaño, Hezi Zerb elkarteko hezitzaile eta egitasmoaren koordinatzailea.

Europar Batasunak bultzatu du “Gazteen aktibazio proiektua” izeneko ekimen hau, eta Andoaingo Udalaren laguntza jaso du besteak beste. Otaño- ren hitzetan, “Motibaziorik gabe dauden gazteak, eskola eta lan mundutik kanpo dauden gazteak motibatzea du helburu egitasmo honek. Kasu honetan, Leitzaran ibaia berreskuratu nahi izan da”.

Garbiketa lanetan parte hartu duten Jagoba, Ruben, Oskar eta Jorge gazteak gustura agertu ziren egindako lanarekin, eta Otaño- k azaldu zuen bildutako zakar guztia- ren lagin bat zergatik eraman zuten Goikoplazara. “Zakarrak propio jarri ditugu ikusgai kalean, herritar- ren interesa eta kontzientzia pizteko. Egia esanda, jende ugari geratu da begira-begira, eta guk bezainbesteko harridu- ra erakutsi du ikusitakoarekin”.



Andoaingo alkatea gerturatu zen gazteek ibai bazterretan bildutakoa ikustera.



Garbigunera eraman beharreko zabor ugari aurkitu zuten ibai bazterretan.

Goikoplazan erakusgai jarritako zakar guztia, gehi beste

hirurogei bat poltsa handietan sartzen zen guztia Garbigunera eraman zuten ondoren.

Bideoa: aiurri.eus

“Testigantzak” ikus-entzunezkoa



Basteroko auditorioan eskaini zuten ikus-entzunezkoa.

Asier Oiartzabal Andoaingo euskal preso ardatz duen dokumentala aurkeztu zuten aurreko asteartean Basteron. Gaur egun Frantziar estatuko Saint Maur presondegian dago. Hari buruzko lana ikustera berrehun bat pertsona gerturatu zen.

“Bizitzaren herena” herri ekimenak ekoiztutako ikus-entzunezkoaren estreinaldia izan zen eta ondoren ikusle- ek emanaldiak eragindako iritzi eta inpresioak trukatzeko aukera eduki zuten, irteer- ran prestatuta zeuden zizka- mizkak tarteko.

Senitarteko, adiskide, au- zokide eta ikaskideen testi- gantzak osatzen dute lana, 40 minutuko iraupena duena. Denek ere bere nortasuna eta konpromiso politikoa nabar- mendu zuten. Guraso eta se- nitartekoen hitzek eta batik bat bikotekide Ainhoa Zaba- laren lekukotzak oraindik eta hunkigarriago egiten dute ikus-entzunezkoa. Senitarte- koa mila kilometrora egoteak bizitza normaltasunez egite- ko jartzen dizkien trabak, eta horrek emozionalki eragiten dizkien sentimenduak aipagai izan zituen.

‘Andoain Bizi’ egitaraua

Abenduaren 10ean hasita, Eguberrietako hitzordu uga- ri iragarrita daude Andoi- nen. Egun horretan Onda- rreta ikastetxeko AMPA el- karteak jostailu bilketari ekingo dio Basteroren kan- poaldean.

Eta abenduaren 12an hasi eta urtarrilaren 5a bitarte

Salkin merkataria elkar- teak Eguberrietako kanpaina in- darrean izango du, zeinaren bitartez Gabonetako 45 sor- ta irabazteko aukera izango den.

Ekitaldi gehiago izango di- ra herrian, besteak beste, Gazte Astea edota IkusZir- kus zikloa.



ORAIN EKONOMIA

gipuzkoa.eus/ekonomia

Ekonomia Suspertzeko Plana

Gure lurraldeko **ekonomia, enplegua eta ongizatea** indartzeko.

200M€
2015 > 2019

Industria

Lehen Sektorea

Gizarteratzea

Kultura eta Turismoa

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

SANTA ZEILIA ZIKLOA

Amaiera gogoangarria

Andoaingo Udal musika eskolako bandak eta abesbatzak Basteroko auditorioaren aurrean emanaldi gogoangarria eskaini zuten, igande eguerdian.

Santa Zezilia egunaren harira antolatutako ekitaldi zikloari amaiera emateko ekitaldia izan zen. Jendetza bildu zen auditorioan, baita gogoz txalo egin ere.



Andoaingo irakasle taldea eta Udal ordezkariak bandarekin eta abesbatzarekin batera Oskorriren "Aita semak tabernan daude" kantua abestuz amaiera eman zioten kontzertuari.

Musika egunak igaro dira, Santa Zezilia santuaren inguruan egiten direnak. Bastero areto ezberdinetatik ganbera piezak, musika klasikoa eta musika garai-kidea lantzen dituzten proposamenak igaro dira, oro har, parte hartze handiarekin. Santa Krutz elizan beste musika talde batzuk egindako Santa Zeziliako emanaldi bereziak ere ikusle askoren arreta bereganatu zuen.

Udalak antolatu zuen zikloaren amaiera herriko musikari eta kantarien eskutik iritsi zen. Luzez eta gogor prestaturiko emanaldia bikain atera zen, eta kantu askori dirdira berezia eman zieten gonbidatu bereziek. Alde batetik, bakarlarari modura aritutako Rebeca Gestoso edota Leyre Ricon kantari gazteak. Eta, bestetik, taula gainera igo zirenak. Amaiera aldera iritsi zen une hori, hiru ikastetxeetako irakasleen eta Udal korporazio ia osoaren parte hartzearekin. Oskorriren kantu ezagunak aukeratu zituzten kantuan aritzeko. Irakasleek "Euskal Herrian Euskaraz" abestu zuten, eta haien atzetik Udal ordezkariak "Aita semeak tabernan daude".

Emanaldiari amaiera emateko, Udal ordezkariak azken kantu erreplikatu zuten. Bigarrenez irakasleak berriro abestera deitu deitu zituzten.



Rebeca Gestosok "Dias de verano" kantua abestu zuen.



Mikel Emezabal Bandako zuzendaria.



Leyre Riconen "I dreamed a dream" kantua abestu zuen.



Iñaki Arregi, Miren Zarraga eta Irene Arregi jendez gainezka zegoen auditorioko lehen lerroan.

DATORREN ABENDUAREN 9AN PIANO LAU ESKUTARA, KATIA ETA MARIELLE LABEQUE AHIZPA EZAGUNEN ESKUTIK

Labeque ahizpak

Luxuzko emanaldia, Andoaingo Piano Jaialdi berriaren atariko izan zitekeena. Edizio berria lantzen ari dira, eta oraindik hilabete batzuk falta badira ere, gomendagarria da Katia eta Marielle Labèque ahizpek lau eskutara eskainiko duten emanaldira hurbiltzea. Urteak dira nazioartean handik hona dabiltzala, eta Euskal Herrian aritzeari ez diote muzinik egiten. Tarteka Euskadiko Orkestrarekin edota Oreka TX taldearekin taula gainera igo dira. Baita Kala-

kan taldearekin ere. Musika kritikariek performance kutsua hartu izan diote Lapurdiko bi ahizpen emanaldiei. Argia astekarian, esaterako, zera idatzi zuten: “Bakoitzak nortasun markatua du, eta ondo jakin dute publikoaren artean zabaltzen, nolabaiteko legenda bat sortzeko haien inguruan. Katia jazz-zalea da, oldartsua, istrionismoa azaltzen duena. Marielle-k, aldiz, diskrezioa eta esanekotasuna primeran irudikatzen ditu”.

[Abenduak 9, ostirala. 20:00. Bastero. 10 euro.](#)



Emanaldi ikusgarria eskainiko dute Basteron, ohiko duten moduan.



Joserra Senperena donostiarrak ganbera piezak ekarri zituen Andoaainera.



Mirari Irurzun eta Susana Cencillo musikarien emanaldia, aurreko ostiralean Basteron.

Kontzertua elizan

Maila handiko kontzertu kolektiboa eskaini zuten azaroaren 19an hainbat musika talde eta bakarlarik, Santa Krutz ermitan. Okasiorako instrumentista ezagunez lagunduta, Gora Kale Txiki Bandak kalejira egin zuen kalez kale. Gero, Santa Krutz eliza bete-bete zegoela emanaldia eskaini zuten. Errepertorio zabala eskaini zuten partaideek: Hernaniko Ozenki abesbatza eta Doinu zale akordeoi orkestra, Olagain txistulari elkarte eta bakarlari lanetan Klaudia Alduncin eta Xabier Ucin klarinete jotzaileak.

Emanaldian zehar Andoain herriarekin nola edo hala harremana duten musika doinuak jo zituzten, eta Pepe Saenz *Pepe Andoain* musikariak bereziki protagonismo handia hartu zuen berak sortutako bi pieza jo zituztelako: “Goi-buru” eta “El Pajarito salio de la jaula”. Haren bi alabek esker oneko omenaldi-txoa jaso zuten elizan bertan.

Entzuleak asetuta irten ziren ermitatik, kalitatezko musikariek errepertorio ederra osatu baitzuten. Era berean, etorkizun oparoa duten Alduncin eta Ucin herriko bi gazteen balioaz jabetzeko kontzertu baliagarria izan zen.



Alduncin eta Ucin herriko bi gazteen balioaz jabetzeko kontzertu baliagarria izan zen.



JON ANDER UBEDA • ANDOAIN

Kudeaketaren agintaldia

Udal agintaldiak azaroan lehen urtea egin duela esatea litzateke zehatzena. Azaroan hartu baitzen agintaldiaren norabidea baldintzatu zuen erabakia, ur azpiegitura sareari eta hori konpontzeko egin

beharreko inbertsioari loturikoa. Krispetak edo palomitak mikrohuinetan berotzen jartzen direnean bezalaxe, lurrazpiko hodiak bata bestearen atzetik lehertzen ziren. Etenik gabe.

Hoditerian hausturak asteroko burukomin bilakatu ziren, herri osora zabaltzen zirelarik: Doktor Huitzin, Kale Nagusian, Ama Kandida etorbidean, Karrikan, Kaleberrian.

Arazoari irtenbidea aurkitzeko bi aukera nagusitu ziren: Gipuzkoako Ur Kontsorzioan sartzea edota Udalaren kabuz ekitea. Bien artean aukera baten alde egin beharra zegoen.

Udal ardura nagusienak dituen EH Bildurentzat egokiena Ur Kontsorzioan sartzea zen, herri askok egin duten bidea jarraituz. Kontsorzioarekin sinaturiko hitzarmenarekin, ur azpiegitura sarea berritu eta urari dagokion zerbitzu osoa (fakturazioa, kibraketa, mantentzea) euren esku geratuko litzateke. Abantaila asko zituen aukera zen, bereziki, zorpetzerik ez zuelako ekartzen.

EAJ-PNV alderdiaren ustean hobe zen ur zerbitzua Udalak berak kudeatzea. Fakturazioari eta kibraketari eustea sutsuki defendatzen zuten. Horren alde egitean, azpiegitura berritzea mailegu bidez egitea beste aukerarik ez zen aurreikusten.

Andoaingo politikagintzan ohiko denez, erabakiaren inguruko misterioak azken segundura arte iraun zuen. Uraren aferan EH Bilduren eta EAJ-PNVren proposamenak aski ezagunak ziren arren, PSE-EE isilik zegoen. Bada, 2015eko azaroan egin zuten aparteko batzarraldian sozialistek EAJ-PNVrekin bat egin zuten ur zerbitzua herritik bertatik kudeatzeko asmoarekin.

Esan daiteke, azpiegiturak berritzeari dagokionez, agintaldi berriaren kontagailua hor jarri zela martxan.

ALDERDI BAKOITZAREN ASMOAK
2015eko ekainaren 13ko kargu hartze ekitaldiak jeltzaleen eta sozialisten artean sortu zuen krisia eta gero, uda amaiera hartan alderdi bakoitzak agintaldirako bere asmoak azaldu zituen. Bitxia da hermerrotekari erreparatzea, 2015eko irailean EH Bildu, PSE-EE eta EAJ-PNV alderdi nagusiek lau egitasmo handi sustatzea defendatzen baitzuten: ur azpiegitura sarea berri-



Ur hoditeria berritzeko lanak Kaletxikin, Goikoplazarako norabidean.

tzeta, materia organikoa biltzeko edukiontzi berria txertatzea, bakea eta bizikidetzan sakontzea eta eskualdeko garapen agentzia martxan jartzea.

EH BILDU

“50 neurri Andoain denon artean garatzeko” eskuorria zabaldu zuen gobernu taldeak iazko irailean, urrian auzoz auzoko topaketak iragartzearekin batera. Lau egitasmo handi horiek lehen bost neurrien artean aurki zitezkeen:

- 1 “Ur hoditeriaren berrikuntzarako plana onartu eta martxan jarri”.
- 2 “Beterri Garapen Agentzia martxan jartzeko alderdien arteko dinamika berrartu”.
- 3 “Hondakinen bilketa sistema berria martxan jarri: txipa duen edukiontzi marroia”.
- 5 “Gatazkaren ondorioak pairatu dituzten pertsona guztiekin lankidetzara abiatu, bizikidetzara iraunkor baten alde”.

EAJ-PNV

Irailean Gregorio Olasagastiren ordezkari Ainhoa Elolaren aurkezpenarekin batera, oharra igorri zuen hedabideetara “EAJ-PNV-k Andoaingo herriaren egunerokotasunean erabakigarri izateko borondatearekin eman dio hasiera ikasturteari” izenburupean: “Zinegotzi talde

berria osatu ondoren, Izagirrek aurreratu du udazken honetan proposamen ezberdinak plaza-ratu eta elkarbanatzeko asmoa duela, adibidez Beterri eskualdeko garapen agentziari buruzkoa (...) Bestalde, EAJ-PNVk berriro ere mahai gainean ipini du herriko ur hornidura sarearen arazoa eta urgentziaz honen ordezkapen eta konponketa plan bat martxan ipintzea aldarrikatuko du. (...) Organikoaren bilketarako edukiontzi marroia ezartzea, bakea eta bizikidetzaren inguruan kontsentsu zabalak lortzea... eskuartearen izango diren bestelako gai batzuk dira”.

PSE-EE

2015eko irailean Udal gobernu taldearen lehen ehun egunen balorazioa egin zuten: “Andoaindarrok merezi dugu azken lau urteotako paralisitik atera eta irtenbideak bilatzeari ekitea. Mahai gainean ditugun egitasmo garrantzitsuenen artean haurrek nabarmentzen ditugu:

- Uraren eta argiteriaren arazoi irtenbidea ematea.
- Beterri eskualdeko garapen agentzia kontsentsuaren bidez martxan jartzea.
- Bosgarren edukiontzi behingoz martxan jartzea.
- Turismoaren aldeko apustu garbia egitea.

Horiek guztiak garrantzitsuak baldin badira ere, agintaldian zehar bakegintzan eta bizikidetzan sakontu egin behar dela uste dugu”.

Lau lehentasun zeuden, beraz, 17 zinegotzitik 15 zinegotzi biltzen zituzten hiru alderdi nagusientzat: ur azpiegitura sarea berritzea, materia organikoa biltzeko edukiontzi berria txertatzea, bakea eta bizikidetzan sakontzea eta eskualdeko garapen agentzia martxan jartzea.

Eta nola daude, bada, lau atzergai nagusi horiek? Bada, esan genezake, urtebeteen asmoen betetze maila oso altua izaten ari dela. Azter ditzagun banan bana:

ASMOAK URTEBETERA

Garapen agentzia

Izaera eta egitura zehazten den bitartean, Beterri-Buruntza agentzia modura lan egiten ari dira Andoaingo Udal teknikari bat langintza horretan jarrita. 2016ko azaroaren 15ean Gipuzkoako Foru Aldundiaren prentsa gabinetearen albiste honek agentziaren beraren existentzia konfirmatzen du: “Esperientzia pilotuak martxan jarri, ebaluatu eta, ostera, ondorioak politika publikoetan txertatu. Eskema honi jarraiki landu nahi ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeak etorkizunera begira dituen erronka nagusiak. Hori da, hain zuzen ere, Etorkizuna eraikiz egitasmoan jaso duen estrategia, Gipuzkoako diputatu nagusiak, Markel Olanok, gidatzen duen programa. (...) Diputatu nagusia Hernanin izan da gaur, Buruntzaldeko garapen agentziak gonbidatuta, tokiko eragileei egitasmoaren berri ematen”.

Bosgarren edukiontzi

Sistema martxan dago, eta dagoeneko hiru mila edukiontzi eta txip banatu dituzte andoaindarren artean. Aurreikusitako eskaera gainditzen ari dira. Laster iritsiko dira lehen datuak. Aiurri egindako elkarriketan hezitzailearen azalpenak baikor egoteko modukoak ziren: “Harrituta gaude eran-

tzunarekin. Hasiera batean, herriarren erdiak parte hartuko zuela espero genuen, baina muga hori pasa egin dugu eta oso pozik gaude. Oraindik ez dugu datu zehatzik, baina erabiltzaileen parte hartzea hemendik bi hilabete barru (2017ko urtarilla) ikusiko dugu”.

Ur hoditeria

Aurrekontuen onarpena bideratzeko EH Bildu eta EAJ alderdien arteko akordioaren bitartez, ur azpiegitura sarea berritzeko urte anitzeko inbertsio plana adostu zen. Emaitzak bat-batekoak dira, hiru hilabetero Ibiurri eskatutako ur kantidadea murrizten ari baita, eta ondorioz gastua ere murriztuz doa: Datuen konparaketa eginez, hiru hilero 300.000 euro inguru aurrezten da Ibiurri ordaindu beharreko fakturan.

Bakea eta bizikidetz

Udal ordezkari guztiak Baketik erakundearekin batera bakea eta bizikidetzaren gai arantzatsua lantzen ari dira. 2016ko azaroaren 10ean, Memoriaren egunean, adostutako adierazpena eta hura aurkezteko argazkia oso esanguratsuak izan ziren.

Agintaldia motel hasi bazen ere, kudeaketaren ikuspegitik alderdi bakoitzaren lehentasunen betetze maila oso altua dela ondoriozta daiteke: Ur azpiegitura sareari irtenbidea eman zaio, edukiontzi marroia herrian txertatu dute, garapen agentzia martxan doa eta bizikidetzaren mailan orain urte batzuk zail zirudien irudi bateratua lortu da.

“Kudeaketaren agintaldia” izaten ari dela lasai asko esateko moduan gaude. Horretan ez dago zalantzarik. Bide beretik doaz gertaerak, gainera. Aste honetan bertan Udal gobernu taldeak (EH Bildu) oposizio alderdi guztiei 2017rako aurrekontu proposamena aurkeztu die. Euren esku balitz, abenduan bertan onartuko litzukete. Onarpenerako plenoa zein hilabetetan izango den, horixe zalantza handiena. Zeren eta aurrekonturik ez onartzea, horixe bai litzatekeela ezustekoa.

ELKARRIZKETA

Punttuka bertso eskola

Bertsolaritza sendo dago Andoainen, eta horren adierazgarri da helduen bertso eskola; astero bildu ohi da, 2010ean bildu zenez geroztik. Bertso eskolako kide diren Ion Beloki eta Arkaitz Lasartek

azpimarratu dutenez, bertsoarekin gozatzea da eskolara hurbiltzen direnen helburu nagusia. Punttuka elkarte sortu berri dute Andoainen bertsozaletasunari bultzada emateko asmoz.

Zenbatek osatzen duzue helduen bertso eskola?

Arkaitz Lasarte: Hamar-hamabi lagun biltzen gara, Unai Muñoa irakaslearen agindutara. Basteroko bilera gelan daukagu hitzordua ostegunero, 19:45etatik 21:15etara. Ateak irekita dauzka edonork; edozein garaiotan bertara daiteke, hemen ez baita aisialdiko hainbat ikastaroetan bezala, denboraldiaren hasierarekin batera eman behar izena. 80 eurokoa da urteko kuota.

Oso talde anitza da gurea. Adinean, zaharrenak hirurogeitik gora urte edukiko ditu eta hogeitik gora gazteenak. Tartean bada euskaldun berriren bat eta baita euskara ikasten ari den beste bat. Giro ederrean aritzen gara guztiok, eta tarteka afariren bat edo beste ere ez da falta izaten.


Zer esango zeniokete eskolara joateko gogoa eduki arren, lotsagatik edo beste arrazoiengatik pausoa emateko errepa-roak dauzkan bertsozale horri?

A.L.: Azaldu dadila batere beldurrik gabe. Klaseak oso dinamikoak dira, ez dute funtzionatzen eskema jakin batekin. Unai Muñoa irakaslea oso malgua izan ohi da gutako bakoitzarekin; beti daukazu prest laguntzeko, non zauden kontuan hartuta.

Nire kasua azalduko dizut: orain hiru urte hasi nintzen eskolan, bertsoa zer zen ia jakin gabe. Gogoz netorren, eta aurreneko hiruzpalau astetan entzule gisa jardun nuen; zerbait idatzi egiten nuen, asko jota. Laster, ordea, taldearen dinamikan integratzen hasi nintzen eta agudo joan zitzaizkidan beldurak eta lotsak. Gaur egun, zertxobait inprobisatzera eta bertso batzuk idatzi ahal izatera iritsi naiz.

Zein da bertso eskolaren helburua, beraz?

Ion Beloki: Bertsolari bihurtzea, hori ez



Bertso eskolako zenbait kide, orain arte egindako azken afarian, Errekaburu elkartean. Zutik: Unai Muñoa, Rober Brosa, Arkaitz Lasarte, Ion Beloki eta Agustin Aizpurua. Eserita: Miren Lopez de Munain, Koldo Leunda, Beñat Beloki, Arkaitz Lasa eta Extebe Lopez de Munain.

Udaberrian Gipuzkoako Herriarteko bertso txapelketa datorkigu, eta Andoainek bere taldea aurkeztuko du

behintzat. Errimarekin jolastea, bertso bat idazten jakitea, kantatzea... Eta egunen batean, nork daki, bertso bat edo beste bat-batean botatzeko kapaz izatea. Nolanahi ere horrek ez du kentzen nork bere bidea egin dezan, bertso gogintzan sakontzen joan dadin eta iristea ez dakit noraino. Bertso eskolara datozen ikasle gehienei, guztiei ez esateagatik, ez zaie burutik pasatzen etorkizunean jendaurrean bertsotan hastea. Normala da errespetua eragitea jendaurrekoak, eta ezin dena da inor behartu. Hori baino gauza kaltegarriagorik ez dago jendeak bertsoarekin gozatzeari utz diezaion.

Zer moduz doa haurren bertso eskola?

I.B.: Poliki moldatu izan da azken urteetan talde koxkor batekin, LH4tik DBH4ko ikasturteko ikasleekin. Gogoz etorri izan dira ikasleak bertsoarekin hitz jolasak egitera, eta Andoainen sortu diren zenbait kultur ekitaldietara gonbidatu izan gaituztenean, hantxe izan gara (Soroazabal eta Mendiluzeren omenaldian, 400. urteurrenean, Haurren euskal jaialdian, FolkExtremen...). Aurtengo denboraldian oraindik ezin izan dugu taldea osatu, baina eginkizun horretan gabiltza. Besteak beste, zenbait bertsolari gazte ikastetxez ikastetxe dabilta motibazio saioak egiten.

Beste herrietako bertso eskolekin harremanik ba al daukazue?

I.B.: Udaberrian Gipuzkoako Herriarteko bertso txapelketa datorkigu, eta Andoainek bere taldea aurkeztuko du, Punttuka elkartearen izenean.

Gutako bakoitzak bere funtzioa beteko du txapelketa horretan; Jon eta Aritz Eskudero anaiak eta hirurok bat-bateko saioetan hartuko dugu parte; Arkaitz Lasarte epailea izango da, Miren Lopez de Munain antolaketa lanetan arituko da, eta Unai Ormaetxea bakarriketari eta gai jartzailea izango da.

Punttuka elkarte aipatu duzue. Zer dela eta ikusi duzue beharrezkoa Punttuka sortzea?

I.B.: Batetik, erakunde publikoekin-eta eduki beharreko harremanak bideratzea errazteko. Eta bestetik, bertsogintza sustatzeko Andoainen, arlo ezberdinetan, bertso eskola, publikoari begirako bertso saioak, hitzaldiak...

Oraingoz, honakoa da gure kontak-tua: punttukabertsoeskola@gmail.com. Aurrerantzean, sare sozialak-eta erabiliz bertsolaritzari buruzko era guzti-tako informazioa emateko asmoa dauka-gu.

Zer moduzko osasuna dauka bertsolari-tzak Andoainen?

A.L.: Osasuntsu dagoela esango genuke. Andoainen bertsolaritzarekiko badago zaletasuna, badauka publikoa. Gero eta gazte jende gehiago ikusten da saioetan, herrikoetan zein herriz kanpokoe-tan. Formatu ezberdineko saio ugari egiten da urtean zehar; bertso afariak, bertso saio klasikoak, bertso musika-tuak,...

I.B.: Arkaitzek esandakoarekin jarraituz, iruditzen zaigu Andoainen urtean zehar ematen diren ekitaldi guzti horiek zentralizatu, eta guztiekin egutegi bat edo antzeko zerbait sortu beharko litzatekeela. Elkarte prest legoke lan-keta hori egiteko, herriko eragile eta antolatzaile ezberdinekin elkarlanean jardunez.

punttukabertsoeskola@gmail.com



OSTIRAL HONETAN ANDOAINGO BASTERON!

Gabon, Txirrita

Noiz:
Abenduaren 2an,
ostiralarekin.

Non:
Andoaingo
BASTERO
Kulturgunean.

Ordua: 21:30

Sarrera 12€

Sarrerak salgai.
Andoain: Ernaitza,
Delgado eta Stop.
Urnietak: Bikain (plaza).

111AKADEMIA:

Legetzaile:

Babesle:



Gobernu berria Eusko Legebiltzarrean

Hauteskundeak ospatu ondoren, ohikoa da alderdi guztien arteko elkarriketa, batik bat, gehiengo absoluturik ez dagoenean. Jakina, erakundeen artean itxurakeria eta antzerkitik asko dago, eta askotan gehien bozkatua izan denak jakin badaki norekin ezkondu edo elkartu gobernu berria sortzeko. Hemen ere, eskema hori bete da: elkarriketak EAJ-PSE, EAJ-EH BILDU, EAJ-ELKARREKIN AHAL DUGU eta parlamentua osatzen dutenenen arteko dantza jokoa. Eta, dantza egin ondoren, gobernua osatzeko sortu da bikotea: EAJ-PSE. Badirudi beste ahalegin batzuk egin direla, baina, finean, aipatu bi horiek geratu dira eta ezkontza sinatu dute, eta bakoitzak bere kontseilariak izango ditu. Protokoloa ezustekorik gabe garatu da; gidoia zehatz mehatz bete da: Urkullu lehendakariak zin egitera-koan Jaungoikoa aipatu du, eta, nahiz eta XXI. mendean eliza eta estatuaren arteko banaketa aipatzen den honetan, klixe zaharrek hor diraute.

Parlamentu eta Gobernu berria osatu dira eta bakoitzak agerian jarri ditu bere helburuak, asmoak, norabideak eta tresnak. Parlamentu berriaren irudia eta argazkia asko gustatu zaizkit. Parlamentu berritua, gaztea, emakumezko asko, gorbata gutxiago..., mende eta belaunaldi berri baten isla da. EH Bildu berritua ikusi dut, indartsua, aldatua. Aurpegi berri askoz osatua eta eraginkorra izanzen delako itxura hartu diot. EAJkoak ezagunak dira eta PSEkoak ezezagunak egiten zaizkit, Arriola izan ezik. Elkarrekin Ahal dugu ere fresko dator, eta bere perfila azpimarratzen ikusi dut. Jakina, sarrerako hitzaldiek ere nork bere perfila adierazteko balio izan dute. EAJ eta EH BILDU, autogobernuan ezik, bata bestea- rengandik aski aldentuta ikusi ditut. Nabaritu dudana da EH BILDU estatu berriaren inguruan prest dagoela Madrilgo bide hori egiteko, baina itzulera? Hor dago kokxa.

Oroimenean, bakegintzan, espetxe politikan... eta mundu horretan gai izaten diren malgutasunez jokatzeko. Elkarrekin Ahal dugu bidaide izanzen dute, noski. Herritarrok seguru eskertuko dugula.

Maialen Iriarteri ez nion entzun hitz bat ere ETari zuzendua, alegia, desagertu dadin. Ulertzen dut beldurra dagoela gai hori aipatzeko eta horren ordez desarme ordenatua esaten dela, adostasunaren izenean, noski.

Ahal duguk indar berri gisa eman diezaioke ukitu berria bere profil sozialetik. Erabakitze Eskubidean ere hiru indarrak ados daudela dirudi, nahiz eta puntu honetan ere Elkarrekin Ahal Duguk erabakitze eskubidea beste zen-

Orokorrean ikusita, gehien gustatu zaidana akordioetarako jarrera izan zen. Ez dut nabaritu, hain urruti egiten ez zaizkigun liskar eta deskalkifikazio horiek. Beste izpiritu bat ikusi dut, eta hori asko gustatu zait. Ea egunerokoan islatzen den

bait eremuetara ere eramane nahi duen eta, oso ongi deritzot hori. PSEk badirudi nazio hitza onartu duela, nahiz eta jakina bere irabardurak egiten dituzten esanaz, alegia, nazio kulturala etab..., baina urrats bat izan daiteke. Erabakitze Eskubidean epel ikusten ditut. Hauek dira noski, eta Oroi-men eta Bizikidetzarena ere bai, EAJ eta PSEren arteko puntu ilunenak, beti ere, nire irudiko. Denborak esango du. PSE aurkitzen den egoeran ikusita edo-zer gerta daiteke. Auskalo!

Orokorrean ikusita, gehien gustatu zaidana akordioetarako jarrera izan zen. Ez dut nabaritu, hain urruti egiten ez zaizkigun liskar eta deskalkifikazio horiek. Beste izpiritu bat ikusi dut, eta hori asko gustatu zait. Ea egunerokoan islatzen den.

FIDEL KOMANDANTEA IN MEMORIAM

Fidel Castro Kubako iraultzaren gidaria, gizaki oro bezala, hil egin da. Atzean utzi ditu bere bizitzako argi-ilunak. Baina, Batistaren diktadurapean zegoen herria askatu zuen. Jakina, dirudunek, eliza katolikoak ere ez zioten bar-katu eta, seguru, gaur Miami aldean bat baino gehiago ospatzen ari dela. Batista erori ondoren ospa egin zutenen ondorengoak dira. Ez dut idealizatu nahi ezen arrisku hori izaten baita. Merezi duena eman behar zaio eta kito. Niretzat edo gure belaunaldiarentzat oso pertsona garrantzitsua izan zen; erreferente bat. Gogoan ditut kartzelako urte haiek. Fidel Castro erreferente bat zen hementxo diktaduraren aurkako borrokan. Beste garai batzuk ziren, nola ez, baina bakoitzari berea eman behar zaio. Gure kartzelako eguneroko bizitzan ere bazuen lekurik Fidelek: Eztabaidatan eta, nola ez, gure kantaldietan kantu asko ziren berari Kubako iraultzari egokitutakoak.

Aiurriko zutabea aprobetxatuz nire omenaldirik beroena Kubari beste nora-bide bat eman zion gizonari, eta Kubako herria gai izan dadila garai berrietara egokitzeko, beti ere, hainbat lorpen ekonomiko eta etikoa baztertu gabe eta subirotasuna mantenduz. Fidel komandantea: "In Memoriam".

HITZ-GEZIDUNAK

				Otalorea	▼		Pitxer	▼		Irautera behartua	▼	
				Itoiti, itogin			Inbertsioa berreskuratu			Kiratsa darie		
				* VILLABO-NAKO AUZOAK	▶							
				Bukatu								
					▶							
Jarioaraziak	▼		Ettxauriko herrixka	▼		Mesedez, otoi!	▶					
Txori mota			Zuhaitz mota			Abere arra						
▶			▼			▼						
Eskumutur	▶									Ez eme	▶	
Auzi										Izan		
▶												
						Ez hika, ez berorika	▶		▼			
						Behorra bero egon						
Beldurtiak	▶						▼				Kontso-nantea	▶
Soto											Titanioa	
▶												
				Temati	▶						▼	
				Tona								
Estatu-rik gabeko herria	▶			▼								

SUDOKU

9 x9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3 x 3-ko laukian ere

				7				
4	5						3	1
2	9						5	4
		2	5		3	9		
				2				
		9	6		7	3		
9	8						6	5
7	1						2	3
				3				

SILUETAK



Zein ote da beltzeko irudiaren silueta?

ERANTZUNAK

6	7	1	4	1	7	3	8	5	2	6
3	2	9	8	2	3	7	1	4	9	5
9	8	3	7	1	2	4	6	5		
5	4	9	6	8	7	3	1	2		
8	3	6	1	2	9	5	4	7		
1	7	2	5	4	3	9	8	6		
2	9	8	3	6	1	7	5	4		
4	5	7	2	9	8	6	3	1		
3	6	1	4	7	5	2	9	8		

2.a Siluetak:

I	R	A	U	N	A	A	R	Z	I	A
T	X	A	S	T	O	L	A			
O	T	A	M	A	R	T	I	A	K	T
I		A	G	O	R	E	N			
I	O	T	A	R	A	Z	O	I	S	E
U	S	A	K	A	Z	O				
A	R	A	Z	O						
X	A	I	K	A						

Ezker eskuin eta goitik behera, zenbaki bakoitzean hitz bera aterako zaizu

	1	2	3	4	5
1					
2					
3					
4					
5					

- 1. Hitz, ele. 2. Antzoki.
- 3. Gurrupilik gabeko gurdiak.
- 4. Kontu, problema.
- 5. Barren handiko, hondo handiko.



KIROL ALBISTEAK

Andoaindarrak eta urnietarrak Donostiako maratoian

Azaroan bi hitzordu nagusi izan ohi dira Gipuzkoako korrikalari askorentzat, Behobia-Donostia eta Maratoia. Aurreko igandean maratoiaren edizio berria egin zuten eta bertan **Mikel Rodriguez** eta **Jon Iturralde** andoaindarrak bikain aritu ziren, bi ordu eta erdiko markaren bueltan. Lehen 16 sailkatuen artean bi andoaindar aurkitzea albiste da!

Horiek bezalatsu andoaindar eta urnietar gehiagok hartu zuten parte. Horien artean **Iker Telletxea** eta **Gorka Bueno**ok duela gutxi hil zitzaien **Mikel Uranga** lagunaren elastikoa soinean zeramatzela osatu zuten maratoia. Maratoi erdian eskualdeko kide gehiago irten zen.



Ezker eskuin, Iker Telletxea (02:59:49) eta Gorka Bueno (02:58:53) andoaindarrak.

Maratoia			
Andoain			
P.	Izena	Denbora	B/B.
11	Mikel Rodriguez	02:31:00	03:35
16	Jon Iturralde	02:34:51	03:40
247	Asier Dominguez	02:56:34	04:11
341	Gorka Bueno	02:58:53	04:14
372	Iker Telletxea	02:59:49	04:16
1246	Axier Etxeberria	03:29:36	04:58
1309	Martin Askarai	03:32:55	05:03
1360	Arantxa Ruiz	03:33:08	05:03
1374	Andoni Lanz	03:33:50	05:04
2330	Nekane Minguez	04:22:24	06:13
2484	Juan Carlos Solana	04:38:05	06:35
Urnietak			
268	Jesus Mari Altuna	02:57:30	04:12
271	Unai Lizeaga	02:58:38	04:14
395	Jose Luis Del Sol	03:01:15	04:18
401	Iñaki NARBART	03:01:31	04:18
596	Iván Sardón	03:10:16	04:31
682	Imanol Garcia	03:14:38	04:37
757	Borja Granado	03:16:54	04:40
1481	Juan Inazio Urrutia	03:37:22	05:09
2008	Jose Luis Romero	03:56:55	05:37
2214	Sara Díaz	04:08:42	05:54

Maratoi Erdia			
Andoain			
P.	Izena	Denbora	B/B.
149	Mikel Eguren	01:24:20	04:00
544	Gustavo Marqués	01:36:06	04:33
553	Maialen Gurrutxaga	01:36:28	04:34
610	Javier Soto	01:37:47	04:38
712	Urtzi Fernandez	01:40:01	04:44
801	Amaia Lacalle	01:41:19	04:48
896	Emilio Audikana	01:42:58	04:53
1226	Manuel Gorjon	01:50:37	05:15
1268	Mikel Jauregi	01:49:33	05:12
1273	Araitx Gonzalez	01:51:28	05:17
1287	David Frutos	01:49:44	05:12
Urnietak			
622	Vicente Benitez	01:38:01	04:39
648	Daniel Gomez	01:37:18	04:37
1032	Gorka Dominguez	01:45:59	05:01
1348	Begoña Villas	01:51:26	05:17
1458	Jonathan Lopez	01:52:52	05:21
*Iturria: Sailkapen ofiziala.			
*P: Postua.			
*B/B: Batatz beste, kilometro bakoitzeko.			

Senior mailakoak bolada onean daude



ORMAIZTEGI 19-33 URNIETA Senior mutilak. Erakustaldi aparta gol gutxien jasotzen dituen taldearen aurka. Partida perfektua ez, baina ia ia. Defentsan sendo eta atean Irigoien gaindiezin. Erasoan, berriz, jaurtiketen %88a sarera joan zen. Ez ziren albiste on baka-rrak izan. Nabarmenezkoa Egoitz Carra- cedoren itzulera, lesioagatik hainbat astez jokoz kanpo egon ostean. Partida bikaina egin zuen.

LEZO 19-21 URNIETA Senior neskak. Bigarren garaipena jarraian, atsedenaldiaren ostean egindako defentsa bikainari esker. Bigarren zatia lehengo 10 minutuetan 0-6 partziala eginez, garaipena ezin izen ihes egin. Azken minutuetan Lezokoek partida apur bat erotu zuten garaipenaren bila, baina azkenean puntuak Urnietara joan ziren.

SENIOR MUTILAK: Ormaiztegi 19- 33 Urnietak Leizaran 23-24 Ordizia **9. jardunaldia, asteburuan:** Ormaiztegi-Leizaran. Lar, 18:30. Urnietak-Urola. Lar, 17:15.

SENIOR NESKAK: Eibar 25-23 Leizaran Muntarpe 19-21 Urnietak **9. jardunaldia, asteburuan:** Leizaran-Galdakao. Lar, 16:30. Urnietak-Urduliz. Lar, 15:45.

Senior mailako futbola

11. JARDUNALDIA. Emaiztak: Behobia 2-2 Euskalduna Deustu 2-2 Urnietak 12. JARDUNALDIA. Asteburuan: Euskalduna-Roteta. Lar, 17:45. Urnietak-S.Tomas Lizeoa. Lar, 16:00.	SAILKAPENA. 10. jardunaldia: 1. Añorga 24 2. Allerru 22 3. Euskalduna 21 4. Trintxerpe 15 11. Urnietak 12
--	--

Galdu arren, lehen postuetan

10. JARDUNALDIA. Emaiztak: Urnietak 1-3 Touring 11. JARDUNALDIA. Asteburuan: Antigua-Urnietak. Ig, 18:30.	SAILKAPENA. 10. jardunaldia: 1. Touring 22 2. Urnietak 22 3. Ordizia 22
---	--

Klubak kopan bigarren



Nesken mailan eta taldeko Kopako txapeldun-orde dira. Zorionak!

ANDOINGO TXIRRINDULARI ESKOLAREN HITZALDIA

Aitor Ugaldek elikaduraz eta **Imanol Iraolak** elikagaiez jardun zuten aurreko asteburuan Urigainen, **Andoaingo Txirrindulari Eskola** ikasleentzat eta kirolarientzat antolatutako hitzaldian. Interes biziarekin jarraitu zuten deialdira hurbildu ziren gazteek. Andoaingo.eus webgunean hitzaldian emandako errezetak, aurkezpenak eta argazkiak ikus daitezke.



Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus **Webgunea:** www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus www.aiurri.eus **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus Tel.: 943 300 732

Banatzzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

ABENDUAREN 1ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain

- **“Igelak”**, euskaraz: Abenduak 3: 19:30, 22:00. Abenduak 4: 19:30. Abenduak 5: 19:30, 22:00.
- **“Albert”**, haurrentzat: Abenduak 3 eta 4: 17:00.
- **“Amor y amistad”**: Abenduak 6: 19:30. Abenduak 7: 22:00. Abenduak 8: 19:30.
- **“Trolls”**, haurrentzat: Abenduak 6 eta 8: 17:00.

Urnietan, Sarobe

- **“The pillow book”**: Abenduak 2: 21:30.
- **“Carlitos eta Snoopy”**: Abenduak 4: 16:00, 18:30.

Antzerkia

Urnietan

- **“Ezer ez da dirudiena”** haur antzerkia, Patata tropikalaren eskutik. 17:30. Sarobe. 3 euro. Abenduak 11, igandea.

Andoain

- **“Gabon Txirrita”**. 21:30. Bastero. 12 euro. Abenduak 2, ostirala.
- **“Txirri, Mirri eta Txiribiton”** haur antzerkia, estreinaldia. 17:00. Bastero. 4 euro. Abenduak 18, igandea.

Bilketa

Andoain

- Jostailu bilketa Ondarreta ikastetxeko AMPA elkarteak antolatuta. 10:30-13:00. Bastero. Abenduak 10, larunbata.

Txapelketa

Andoain

- Euskal Herriko mus txapelketaren edizio berria. 22:30. Irunberri. Abenduak 2, ostirala.

Irteera

Urnietan

- Arabako lautadara irteera, Denda Berrirekin: 08:30 Irteera. 11:00 Bisita bodegara 12:30 S.Maria elizara. 14:30 Bazkaria. Abenduak 8, osteguna.

Omenaldia

Andoain, Bastero

- Joxe Mari Olazabal sariaren bidea saria, Caritasen eskutik, Feli Diez andreari. Abenduak 14, astezkena.

Farmaziak

Eskualdea

- Andoain: **Arzallus**. Urnietan: **Aguado**, Astigarraga.
- Gauez: **Urrutia**, Hernani. Abenduak 3, 4.

Erakusketa

Andoain, Bastero

- **“Esku azpi begi”**, urte amaiera arte.

Kanpaina

Andoain

- Salkinen Eguberrietako kanpaina, Gabonetako 45 saski irabazteko aukera. Abenduak 12-Urtarrilak 5.

Euskara

Andoain

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, hitzordu ezberdinak herrian:

■ **Abenduak 1, osteguna:**

19:00 Bertso-pintxo poteoa, Basterotik. Antolatzailea: La Salle Berrozpe ikastetxea.

18:00 II. Andoain Laburrean: Film laburren emanaldia eta sari banaketa ekitaldia Basteron. Antolatzaileak: Andoaingo Udala eta ESCIVI.

■ **Abenduak 2, ostirala:**

18:00 Kontzertu didaktikoa Gazte Lokalean.

21:30 Gabon Txirrita antzezlan. 12 euro. Antolatzaileak: 111 Akademia eta Andoaingo Udala.

■ **Abenduak 3, larunbata:**

11:15 Kalejira Juanita Alkain plazatik Zumea plazara, Aita Larra-mendi ikastolarekin.

20:30 Bertso afaria Peña Santa Krutz elkarte-an: Arzallus eta Liza-so. 30 euro.

Ohitura

Andoain

- Txerri hiltzea Extremadurako usadioaren arabera. Larunbatean 08:00etatik aurrera, eta asteburu osoan zehar, txerri hiltzea eta jatea egingo dute. Hogar Extremeño elkarteak antolatuta, elkarteetan bertan. Abenduaren 3tik 4ra.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Mikelek 2 urte beteko ditu abenduaren 1ean. Zorionak Natalia eta Miguel gurasoen partetik eta baita Maria Jose, Floren, Victoria eta Florenci aitona-amonen partetik ere. Muxuak.

URNIETA

ZORIONAK



Maddi Usarralde Urbietakazaroaren 24an zazpi kandela-txo itzali zituen pozaren pozez. Ederki ospatu genuen! Zazpi muxu polotologure poxpolinari. Asko-asko maite zaitugunok.

ANDOAIN



ZORION AGURRAK

Erraza da, eta dohainik. Emailaz: diseinua@aiurri.eus Whatsappa: **619 163 537**

LAN ESKAINTZA

Pertsona euskaldun bat behar da 3 urteko ume bat zaintzeko Urnietan. Astelehenetik asteazkenara: 14:00-16:30. Ostegunetik ostiralera: 12:30-16:30. Interesatuak: 650 415 591 / 633 697 878.

ANDOAIN

OHARRA

Datorren asteko jai egunak tarteko, ez da astekaririk argitaratuko.

Hurrengo Aiurri, beraz, abenduaren 15ean argitaratuko da.

Barandiaran eta Franco eztigileak saritu dituzte



Gorrotxategi gozogilea, Barandiaran eta Franco eztigileak.

© Noaúa

Andoaingo **Aitor Barandiaran** eta **Patxi Franco** eztigileak saritu zituzten Usurbilen, aurreko igandean ospatu zen Erle egunean.

“Mila Lore” izeneko lehia-ketan bigarren saria jaso zuen Barandiaranek, eta “Eztia Argia” izenekoan lehen saria Francok; azken honek, gainera, Gozogintza-ko lehiaketako bigarren saria eskuratu zuen. Argaz-

kian, Usurbilen saritu zituzten Barandiaran eta Franco. Argazkian, ezker aldean Gorrotxategi Tolosako gozogile ezaguna ageri da.

Eztigintzaren sektorean oihartzun handiko eguna izaten da Usurbilen aspalditxotik ospatzen dena. Euskal Herriko bazter guztietako eztigileak hurbiltzen dira jaialdira. Zorionak bi andoaindarrei.



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA